

MUGARRA BEGIRARIA POEMA
EUSKAL HERRIAN ARGITARATUTA

1.- Egilearen biografia edo bizitza

Francisco Atutxa Bikarregi Diman jaio zen, Emaldi auzoan 1908ko uztailan. Dimako jendeak bazuen harremana Larreako karmeldarrekin eta baliteke Karmen egunen baten edo hara joatea. Dena dela, 1921ean Larreako jauregira joan zen apaiz ikasketak hasteko karmeldarren ordenan. Han egin zituen orduan betetzen ziren batxileratoko lau urteak eta 1925eko uztailan jauregi horretatik 100 metrora eraikita zegoen nobizedura joan zen. 1925etik 1926ra bete zuen urte hori, azken urte honetako uztailaren 10ean profesa eginez. Hortik beste urtebete egitera, Markinara joaten ziren karmeldargai zirenak. Eta horrela Anaia Agustin San Frantziskorena zena ere urte hori betetzera joan zen. Urte horretan Espainiako literatura, eta asketika eta mistika ikasten zituzten. Bizitza nobizedu urtean baino leunagoa izaten zen. Eta 1927an Gazteizera joan zen filosofiako hiru urteak burutzera, orduko elizak abadegaientzat jarrita zituen programen arabera. Horiek burutu eta teologia orduan Begoñako komentuan ikasten zuten karmeldarren apaizgaiek. Eta han hasi zuen 1930. urtean

lehenengo ikasturtea. Baina 1931n jorrailaren 14an errepublika sartu zen Espainian auteskundeen ondoren. Eta giroa ez zen batere ona apaizgai eta fraidegaiantzat. Huri batzuetan komentua erre zituzten anarkista kutsuko burubero jente multsoek. Eta jesulagunak Espainatik bota zituen garai hartako gobernuak. Etorkizuna beltz ikusita, orduko karmeldar nagusiek fraidegaiak atzerrira bidali zituzten. Batzuk Hego Amerikara eta beste batzuk Indiara. Gure F. Atutxa Txilera bidali zuten. Han Chillángo komentuan jarraitu zituen teologia ikasketak. Nagusiek komentu hori teologia ikastetxe bihurtu zuten fraidegaien heziketa teologikoari erantzuteko. Eta orduan zegoen eskubidea hartuz, 25 urte bete zituelako, teologiaren azkeneko urtea burutzen zegoala, apaiztu egin zen 1933ko abenduan. Lehenengo zeregina Chuchuncoko karmeldarren ikastetxean bete zuen. Hemen irakaskintza eta pastoral lanak zituen bere zeregin nagusi lez.. Gero Txileko beste komentu guztietan egon zen pastoral lanean. ‘No recuerdo las fechas de tantas idas y venidas’ idatzi zuen bere artxiborako ohar txo baten.

Berarekin bizi izan zen fraide baten testigantzak dioenez, asko irakurtzen zuen, astiro eta sakon. Elkarriketetatik eta sermoietatik asmatu zitekeen zeintzuk ziren irakurtzen ari zen liburuak. Ez zen hizlari beroa, baina hitz neurtu eta zehatzak erabiltzea gustatzen zitzaion. Eta sermoia prestatzen zuen, pulpitan bat-bateko asmakizunak alde batera utzita. Liburu ezagunen bat erosi zuten komentuan eta honelako iritzia bota zuen: ‘Orbela etxera ekarteko horrenbeste zarata’. Arte gaietarako, batez ere literaturarako ba omen zuen zaletasuna. Euskaraz lantxo batzuk idatzi zituen. Espainian zegoala honako ezizenak erabili zituen: ‘Atutxa’, ‘Urlo’, ‘Elorri’, ‘Emaldiko’. Amerikan, berriz, ‘Urlo’ eta ‘Eltzegor’. Hemen bizi izan zen bitartean, ‘Euskal-Esnalea’ aldizkarian, eta Zornotzako ‘Karmengo Argian’ argitaratu zituen lantxo batzuk. Bere lan nagusia *Mugarra begiraria* da. Baina lan honi buruz geroago zeozer esango dugu. 1954an Euskal Herrira eta bere etxera itzuli bat

egin zuen. 1956an gripe bat harrapatuta ohean zegoela, bere herrirantz irudimenezko jauzi bat emanez, itzuli zen eta horrelaxe sortu zituen poema honen zatirik nagusienak, heriondo zegoela. Txileko komentuetan bizi zela poema hori argitaratzeko egin zituen joan-etorri batzuk kontatzen dizkio, azkenean, argitaratzaile izango zen Venezuelako ‘Gudari’ argitaletxe-ko arduradun anonimoari. Beste berri batzuk ere emango ditu, poema hori dela eta ez dela argitalpena lortzeko gertatu zitzaizkionak. Osasunez ere ez zebilen lar ondo eta 1965ean Perura bidaiia bat egin zuen. Hango klima egokiago zitzaiola konturatuz, nagusien baietzarekin hara joan zen eta Chocope herriko giroa gustatzu zitzaion. Hantxe gelditu zen. Eta 1969an kapitulura etortzeko ordezkarietako bat izendatu zuten Peruko fraideek. Kapitulu hori hiru urterik hiru urtera egiten da karmeldarren artean nagusiak aukeratzeko eta komentuen egoera aztertzeko. 1972an osasunak txarrera egin zion eta ebakuntza bat egin zioten. Limara eramanez eta arteroplastia bat jasan zuen. Baina odolosteran arazo handiak zituen batez ere hanketan, eta hanka bat ebaki zioten odolostera arazoak konpontzeko. Okerrera egin zuen eta gero bestea ebaki beharrean aurkitu ziren medikuak. 65 urte bete eta egun gutxira hil zen Liman 1973ko uztailen.

Euskaldunon oroimena ahul xamarra izaten da batzuetan. Alor batzuk gordetzen ditu eta beste batzuk ahaztu egiten zaizkio. Agian A. Sagarna euskaltzainak aipatu duen itxurakeriarekin zerikusia izan dezake. *Orotariko euskal biztegiak* II. tomoan egiten du lehenengo aipamena, baina galdera ikur bat erantsiz. Bizi ote zen inoiz Atutxa hori esateko era da. Gero tomo guztietan aipamen berdina dago. Eta XIII. tomoan agertzen da 1908an jaio zela. Biografia apal honek gure herri honen oroimenaren itsasoari ur zipriztin bat erantsi nahi dio.

Bibliografia.

A. Onaindiak, bere *Euskal Literatura* VI. tomoan dioena aitatu behar dugu. Honela idazten du 184. orrialdean: “Markiñan ele-eder ikasle zala, 1927rantza, zirriborratu zituen bere lenengo lanak itz lauz ta olerkitan; urte ortako *Euskal Esnalean* agertzen dira, gerora ere lau urtez beintzat ortan jardunik; baiña gero Txille ta bazterretan, beste arlo batzuei oratu bearra izanik, etzuen astirik ez gogo andirik izan neurtitz gaietarako, naiz-ta, berak dioskunez, euskal arnasa jatorrak ortara sarri bultz-eragin”.

Arildu zituen gutun, artikulu eta olerkiak arnasa berdinez usaigozotuak daude. *Euskal Esnalean* eta Zornotzako *Karmengo Argian* idatzi zigun gehienbat. ‘Txorizua’, *Euskal Esnalea*. 1931, XXI. 43-45. Poesia batzuk ere argitaratu zituen hemengo aldizkarietan, Amerikara joan aurretik. Hona hemen zerrenda: ‘Aurraren eriotza’, *Karmengo Argia*, 2, 1932, 23. zb. 343 eta *Euzkadi* 20, 1932, 6217 zbk. 1. ‘Basetxea’, *Karmengo Argia* 2, 1932, 22. zbk. 312-313. ‘Bi artzai’, *Goiz-argi* 10, 1969, 109. zbk., 4. ‘Birigarroa’, *Karmengo Argia* 1, 1931, 5. zbk., 132. ‘Eguberri’, *Goiz-argi*, 7, 1966, 84. zbk. 8. ‘Enara goian bego; *Goiz-argi*, 13, 1972, 153. zbk. 3. ‘Ene euskera ezagun dan, *Euskeranzaintza*, 1989, 8. zbk., 10. ‘Errotara bidean’, *Karmengo Argia* 3, 1933, 26. zbk., 42. ‘Euskera’, *Karmel*, 1986-3 104. ‘Gogoeta goibelez’, *Zer*, 1982, 54. zbk., 9. ‘Goizeko laño zuri’, *Agur*, 4, 1973, 103. zbk. 6. ‘Illen errian’, *Karmengo Argia* 1, 1931, 11 zbk., 326-327. ‘Iturrian ontzia urez’, *Agur*, 4, 1973, 103. zbk. 6. ‘Itxasoz galdu ez-ta legorrez’, *Goiz-argi*, 14, 1973, 172. zbk., 6. ‘Izaki onak’, *Euskal Esnalea*, 21, 1931, 328-329 zbk., 71-72. ‘Joseba deuna dala-ta’, *Karmengo Argia* 3, 1933, 27 zbk., 68-70. ‘Kaskalluak’, *Karmengo Argia* 1, 1931, 8. zbk., 117. ‘Katua’, *Karmengo Argia* 1, 1931, 8. zbk., 232. ‘Larramendiko Sorgiñak’, *Karmel*, 6, 1956, 40-42. ‘Leyotik’, *Karmengo Argia* 1, 1931, 2. zbk., 50. ‘Txorizua’, *Euskal Esnalea*, XXI, 1931, 43-45. ‘Udabarria’, *Karmengo Argia* 2, 1932, 17 zbk.,

134-135. 'Unetxo bat, unetxo' *Agur*, 4, 1973, 103.zbk., 6. 'Uriolara', *Karmengo Argia* 2, 1932, 18. zbk., 183. Beste bertso eta poema batzuk argitaratu zituen Txileko *Euzkadi* aldizkarian, 'Urlo' ezizenarekin 1945rantza. Bera hilda gero argitaratuak, A. Onaindiaren bitartez inprimatuta daude.

2.- 'Mugarra begiraria' poemaren sorkuntza eta argitalpena.

Egileak berak kontatzen du eskutitz luze baten zelan sortu zuen poema hau. 'Yo vine a Chile de religioso estudiante hace 33 años. (1964ko maiatzean idazten du) En 1954 hice una visita a mi tierra. Y a los dos años, confinado en cama por una gripe, busqué solaz recorriendo en espíritu las montañas que había visitado. Fruto de esas excursiones imaginarias resultó este escrito patriótico en verso, de unas diez poesías en diversas medidas e hiladas con un plan bien definido de desarrollo. Apenas tiene 80 páginas, pero va apretado, duro y despiadado como lo fue también la última guerra que le sirve de fondo'. Horrela sortu zuen poema hau. Baina sorreratik argitaratu bitartean orrazialdi batzuk ere eman zizkion. Sorrera 1954an izan bazen ere, argitalpena 1969an izan zela esaten digu A. Onaindiak bere *Euskal Literatura VI*. liburuan. 1960tik hasita, hurrengo urteren baten idatziko eskutitz baten oharrak bidaltzen dizkio A. Santi Onaindiari eransteke. Honelako hitzak bidaltzen dizkio: 'Aren atal bateri izena oker ipini nayotsan: *Gernikarena* jarri bearrean, *Aretxarena* ipiñi nayotsan. Beste bazterren baten 'dan'-en orde, 'da' jaroak lerroaren amaieran. Iraduz nebillelako etxakiat zuzendu nayoan. Batez be ta neuk lana amaitu nayoala esanarren, zugatz edo abe gaztea dok-eta, aldakesteenak jatorkozak igarri barik. Ointxe, Aste Gureneko zalaparta onetan otu jatazak aapaldi bi. Erantsi eiozak or joakazan lez, adaski bien arteko zenbakiz, 42gneko orrialdean, *Itsumendi au nondik...* itzekaz asten dan zortzikoaren aurrean bata, ta atzean bestea. Baña or adaskak eta zenbakia baño

ezin leikezak jarri; zortziko barriak ezkerreko orrialde zurian ipiñi bearko. Or doan orritxoak inka egik goi aldetik. Ganera, zalantza bat jaukat or ipiñi joadan itz batek sortuta: “guenez jo eustien iri be adarra”. Eustien ori ondo ete jagok itanoz?” (Fetxa bako eskutitza, baina nik uste dut 1960 baino geroago idatzita dagoela).

Iritzi batzuk poema boni buruz.

Justo M. Mokoroak eskutitz baten honela idatzi zion: ‘Zure lantxoak ez dakit noiz bialdu zendun; A. Fidelek ilbeltzaren azkenetan ekarri erazi zidan eta andik apur batera A. Linok etorri ta eraman zuan berekin. Legunkeririk batere gabe esango dizut, oso gutxitan ikus dedala euskeraz zure orien berdiñeko “gizon-bertso” zaintsu ta ausartik. Leenengotik asita “mayako” ezpadatadantzariak gogora zitziakidan, aien kemena ta adorea, aien jo ta birrindu bearra. Ez da txantxetakoa zure barruko sua ta griña ta etziñan larranbillutarako asmoan ibilli Dimako mal-karretan, goiarnas billa irten zendunean. Euskerari gordintxo iritzi nion, baiña gaiaren bizkortasunari zegokionez, ondo. Lan sakona ta irakurriaren irakurriz gero ta jantziago ta aberatsago agertzen dana. “Gau Miñean” deritzaion zatia ere benetan bizkorra ta giarretsua. Ume onen aitak ez dauka zeri lotsaz egon: ume mardula du-ta, euskal-ume jator bikaina’. (Eskutitz baten zati honen fetxa 1958an ipintzen du Atutxak. Zati hori erderazko itzulpen bat da, Atutxak idazten duena beste eskutitz baten).

Zaitegiren iritzi batzuk Miarriritetik.

1961ean Zaitegi Miarriritzen dago Euskal Kulturaren Alde ize-neko erakundean. Manu de la Sota eta Telesforo Monzón dau-de Zaitegi bere buru dela. 1961ean, otsailaren 9an idazten dion eskutitzean honelako hitzak idazten ditu Zaitegik: ‘Leenik neronek irakurri nuen, ain zuzen, eta urrengoko batzarrean iri-

tzi on baino ohea eman nien lagunei zure poemari buruz'. Urte horretan bertan jorrailaren 18an beste eskutitz baten honelako iritzia bidaltzen dio: '... irakurriago ta zoragarriago egiten zait zure lana; orobat irakurri dutenei... Zure idazti ori argitaratzea orko euskaldunek beren gain artu bear lukete: Mugarra bezalako poema eder eta aberkoia ezpaitira perretxikoak bezala sortzen, adimen, irudimen, biotz andi batek eraginda baik. Orixe uste dugu emen norbait geranok, naiz-ta neuk esan: orixe da Monzón, Manu Sota, Solaun eta nere eritzia...Zu bezelako amar bagenitu, obe legoke gure Euzkadiren oraingoa eta etorkizuna. Geroak olerkari aunditzat artuko ta ospatuko zaitu, ta zure bitartez, baita zure lekaide-alkartasuna ere, orrelako semeak sortezten baititu. Iritzi ortako gaituzu emengoak. Ekin ba, Jaungoikoaren izenean, ezeren beldurrik bage...'

1962an Zaitegi Guatemalan dago eta handik idazten dio azaroko 15ean: '...zure poema ori ezpaita lakaripean uztekoa... Gu zure aldean kilkerak gera ta gutxi bearrekoak. Ausartiagoak? Baliteke. Dana dala zure pomea bein egin duzu ta zeorrek ere obeagorik ateraten neke izango duzu. On andia egingo du noski baino noskiago oraingo gazteek bide ona artu dezaten eta abertzale zaharrek (sic) burua arro ta aidor jaso dezaten...'. A. Onaindiak honela idazten du aitaturako liburuan eta orrialdean: "Mugarra begiraria" poema. Aren lanik ederrena auxu dugu, *Mugarra begiraria*, euskal poema bipilla, Karakasko 'Gudari' argitaletxeak 1969an atera ziona. 94 orrialde, 2005 bertso guztiz. Euskeraz ta erderaz".

Argiratzeko joan-etorriak

Egileak eskutitz luze baten kontatzen ditu pauso batzuk 1964ko maiatza arte emandakoak. Hara-hona desbardinetan ibili zen, argiratzeko asmoarekin. Epailaren 15ean, baina urtea jarri gabe, idazten dio A. Santi Onaindiari: "Emengo gazte bat orra doala-ta nire semearen barri jakitea otu jatak euri itanduz. Aspaldi opatu ta orain ia urte bi dirala orra bialdu nayoan

eresia aitatu gura joat. Or ‘nobiziauau’ daukazuen urrean iñoz aurrera atera barik. Mutil gaiztoa edo tentela dok itxuraz. Nik behintzat bere barri gitxi lortu joat hainbeste denporan aita izanarren. Arbindu, sutu egiten nayok etxamon orren gomuteak; batez be [N-ren] zapuzkeriak. Orren eskuetan itxi ta saste-gira bota bat zirala-ta, A. Pideleri bialdu nayotsan, A. Mokoroa-ri ta Enbeita anaiei erakusteko esanda, erritar baten eta ikasi baten eritxia jakin gura nayoan ezkeror. Ia urte bete igarota idatzi jaustan A. Mokoroak. Berandu artu ebala iñoan eta aztertzeke eperik emon bage A. [N-ek] artu ta eroan ei joan. Ta berak ezer esan bez, nik gero idatzia-ri erantzun bez. An bere arzuloan jaukak urrean azpigarriztat-edo. Oraindino etxakiat Enbeita anaiek ikusi daben. A. Mokoroak esan jaustan zerbait, lana iratzean ikusita. Or joazak banaz bere lerroak. Gortxo jartzen yok zuok espetxean lotuta daukazuen soster ori. Legun-keririk ez darabillela esanarren, nire lagun andia dok-eta, erdia orrek eraso dala uste joat. Diñon erdia be ez dok gitxi. Geroago itzen bat edo beste aldatu ta lana zerbait geitu egin joat. Onezkero etxaukat ortan jarraitzeke asmurik ezta aurrera jote-ko etorri-izpirik. [...] Idatzi egik ainbat ariñen, len esan duadanez, zuon etxamonak erreta nayagoan ezkeror”. Gorago aitatu-tako eskutitzean daude hitz hauek. Azkenean han eta hemen ateak joka ibili ondoren, ez dakigu nork esanda Venezuelen ‘Gudari’ argialetxeak kaleratzea erabaki du antza, eta hango ezezagun bati idazten dio urte horretako maiatzaren 26an: ‘Estimado y desconocido señor’.

Lehenengoz Ekin, Argentinako argialetxean kaleratzeko asmoa izan zuen eta honelako erantzuna jaso zuen: ‘Después de una desesperante demora, me dijeron que consideraban de mérito el trabajo, pero que tenían otros compromisos por delante. En vista de ese fracaso, mandé en 1960 el librito a Francia, al Sr. Solaun. Este lo presentó ante los miembros de EKA (Comisión pro Cultura Vasca) cuyo presidente era el Pbro. Zaitegi. Le adjunto algunos juicios que él y sus compañeros le dedicaron. Esa traducción de los textos la hice para los posibles

colaboradores, porque Zaitegi pedía ayuda económica. Y se le mandaron primero 200 dólares. Más tarde, otros 300 porque se calculó que sólo en viñetas iría la primera cantidad. No le hablo de mi desesperación al no tener contestación a las cartas que escribía ni de las vergüenzas mil que pasé por las renuencias, silencios y desprecios de los vascos, muchos de ellos amigos, al pedir su ayuda con esos juicios y ruegos de Zaitegi en la mano. Para colmo, Zaitegi se fue a Guatemala dejando mi escrito y los dólares en manos de Solaun. Informado entonces de que allí había poco fuste, reclamé mi trabajo. Algo más tarde recibí carta de Zaitegi que me dice, alarmado, no haga tal cosa; que esa publicación debe hacerse en Francia por la facilidad de distribución que tendría, sobre todo, entre los del interior que pasan con frecuencia a aquel lado. Ya está. Escribo inmediatamente a Solaun facultándole para que haga la impresión en la forma que mejor le parezca. Y esta es la hora en que no tengo contestación a ninguna de las dos cartas. Entre tanto habrá pasado año y medio o más. Sólo les pedía unos cuantos ejemplares para gratificar a los erogantes; del resto ellos eran dueños. ¿Hay palabras para calificar semejante proceder? Y no se me diga que no recibí mis cartas. Porque ¿de dónde supo Zaitegi que yo había reclamado el escrito?

El golpe más duro y decepcionante me ha venido de donde menos lo podía esperar. Y aquí veo una farsa o en esos elogios exorbitantes o en ese desprecio de la obra ante su publicación o en ambas partes a la vez. Vaya Ud. a entender eso. Por otra parte, andan buscando libros que merezcan publicación, viejos o nuevos. El que se publicó en Ekin poco después de la negativa a mi solicitud versa sobre ciertos aspectos del versolarismo en el pasado, cosa que importaba poco se publicase más tarde o nunca'.

Eta hemen azaltzen du bere ikuspegia Euskal Herriari buruz. Ikuspegi ezezkorra eta mingotsa. Ikuspegi iluna berarentzat eta beste askorentzat. Franko diktadorea USAk eta Euro-

pak ere onartua zeukaten, komunismoaren kontrakoa zelako iritziarekin. 'Está nuestro pueblo herido de muerte y se va en hemorragia. Mientras tanto se hacen juiciosos y eruditos estudio sobre su historia. Parece que existiera gran interés en adornar la carroza funeraria con vistosos flecos históricos para consuelo de los que asistan al sepelio. Más cuerdo sería en estos momentos trágicos que se dejaran de rutinas y acudieran a cortar la hemorragia. Ahí tiene entre sus manos un trabajo que habla directamente al espíritu vasco, trata de concentrarlo y revivirlo. Se envió dinero para su publicación.. Y no se mueven ni muestran interés en el asunto'.

Eta orain bere etsipena aitortzen du, hainbeste urte ahaleginetan joan eta gero. 'No le extraña que esté decepcionado, que haya dejado el cultivo del euzkera y toda preocupación por la suerte de mi pueblo (lo único que en lo humano tenía interés para mí), que mire la redondez de la tierra como si estuviera poblada de hormigueros donde se trabaja afanosamente no sé para qué. Este asunto rebasa mi interés personal que ya es nulo, porque están ahí muertos 500 dólares y son de los colaboradores...'

Halan eta guztiz ere kalean ikusi nahi du bere sorkuntza poetikoaren emaitza hau. Eta honela idazten du: 'Ahora bien, quisiera saber si en esa colectividad hay alguna persona con relaciones en Francia o bastante ascendiente para reclamar el manuscrito. Si además son capaces de editarlo, tanto mejor. En ese caso, los dólares podrían ir ahí directamente. Pero quisiera dar un último vistazo al escrito de la parte erdérica, a pesar de que Manu Sota aceptó ese cometido'. Eta gero liburu honek pertsonalki berarentzat ekarri ditzaken ondorioak ere aipatzen ditu. 1964an gaude, frankismoa 25 pake urteak ospatzen dago eta Espainiako eleizaren hierarkiak ez du liseritu Batikanoko II. kontzilioa, urte bi lehenago hasi zena. Ondino erdi inguruan dago egon ere. Eta Euskal Herriko erlijiosoen ordenetan ere nagusirik gehienak oraindino nazio-katolikota-

sunak kutsatuta daude. Beheko kleroa, apaiz eta fraide batzuk zeozer bizkortzen hasita daude. Vatikanora bertara agiri bat zuzenduko dute euskal apaiz eta erligioso multso eder batek izenpetuta. Egoera horrela izanik, eleizan bertan dauden arriskuak ere aitatzen ditu. ‘Yo soy pariente del que hizo los cálculos del Centro Vasco de ahí, pero él no sabe nada de este asunto. No quisiera que se diera a conocer mi nombre ni mi condición de religioso porque ese poema tiene partes bravas y me podrán originar algún buen disgusto. Y disgustos me sobran sin uno nuevo. Ahora, me entierra si le parece con una maldición encima. Total, me quedaré donde estaba. Solo le pido que lo haga por escrito. Así sabré siquiera a qué atenerme. Todo es mejor que este eterno y mortal suspenso en que me han tenido durante años, después de haberme animado ellos mismos’.

Egoera horrelakoa izanik, A. Onaindiak ezin zuen inolaz ere argitaratu hemen. Nahikoa zeregin izan zuen *Mila euskal olerki eder* 1954an argitaratu zuenean. Azkenean 1969an eta Venezuelan, Ediciones Gudari izeneko argitaletxeak inprimatu zuen. Jakina, liburuak ez dauka ez legezko gordailurik, ez fetxarrik ez ezer. Ez ziran garairik onenak horrelako xehetasunetan ibiltzeko! Beraz zuzen esan genezake poema hau, isilpeko liburua dala. Herri baten eskubideak zapaltzen direnean eta desagituraketa lortu nahi denean, herri hori desagertarazteko, horrelakoak jasan behar izaten dituzte herri horretako idazle, ikertzaile eta partaide guztiek. Metodo hauek ezagunak dira eta kolonien jabe izan diren nazio guztiek erabili izan dituzte. Txarrena izaten da etxekoek etxekoen kontra horrela jokatzeko dutenean. Lehen ez ezik orain ere gertatzen dira gauza bitxiak argitalpen kontuetan eta ‘euskal kultura’ izeneko esparru horren barruan. Pertsonak ei dira harri bardinean topez egiten dutenak. (Hemen jasotzen ditudan datuak A. Antonio Unzueta artxibariak utzi dizkidan paperetatik aterata daude. Eskerrik beroenak berari).

3. Poemaren gaineko azterketa bat

Sailkapen hau burutzeko J. M. Lekuonaren *Abozko euskal literatura* liburutik hartu ditut ereduak. Hor 139. orrialdetik *169ra sailkatzen ditu bertsolarien estrofa motak. Poemaren formari begiratzuz honelako estrofak, neurriak eta errimak erabiltzen ditu: ‘Eskeinta’, ‘Erbestea’, eta ‘Urrunetik urrunera’ ataletan zortiko nagusiaren antzeko estrofa bat erabiltzen du. Zortziko nagusian 10-8A, 10-8A, 10-8A, 10-8A izaten da. Hemen berriz, 10-8A, 10-8A-8B-8B, 10-8A. ‘Azalekotzat’ atalean, kopia luzearen antzekoa. Kopia luzearen estrofa honela da: 8A-8A-8A, 10, 8A-8A-8A-8A. Hemen berriz estrofa honelakoa da: 8-8A-8-8A, 10-8A, 10-8A.

Kopia nagusiaren antzeko estrofak erabiltzen ditu hurrengo ataletan: ‘Ataria’, ‘Ireltxuaren deia’, ‘Mugarra begiraria’, ‘Gauberanduan’. Kopia nagusia: 10-8A, 10-8A-8A-8A. Hemengo estrofa: 10-8A, 10-8A-8^a

‘Gernikarena’ eta ‘Eguantza’ ataletan kopia tankerako estrofak erabiltzen ditu: 8A-8A, 10-8A. Zortziko txikia ‘Aretxarena’ eta ‘Txabola ta yatorria’ ataletan. Zortziko klasikoaren antzekoa, ‘Aindiako otsa’ atalean. Zortziko klasikoa honela da: 8-7A, 8-7A, 8-7A, 8-7A. Estrofa hauek berriz: 8-7A, 8-7A, 7-6A, 7-6A. Eta ‘Azalekotzat’ azken atalak estrofa berezi bat erabiltzen du: 12A-12A, 6B-6B, 12A, 12C-12C. ‘Juana Bixenta Olabe’ estrofa-rekin antza apur bat badauka.

4. Mugarra begiraria.

[A. Agustin Atutxaren sarrera eta poemaren bertsoak]

Argitasunak.

İnok ausaz yakin gura dau noz eta nondik agertu dan eresi-txo au. Neuk baneki. Neu naz sorkari onek geien arritzen

dauana. Luzaro eskuetan euki ta maitero erabil ez baneu eneban esango neurea zanik. Ain zuzen be garai artan yaiotze orren zertzela idatzita ixtea otu yatan eta nagikeriz egin ez. Beraz etzan makala neure arrimena.

Ez da beintzat buruz egiña. Bestek esango burutsu egiña dan ala ez. Zerbait idazteko asmua edo naikeria izanarren eneban urte bitan ortara yo. Enekian zer idazti ezta nondik nora yoan. Gogapean zegon zerbait ernemiñetan. Eta bein eragin goiztar batez lanean asiazkero eneban bakerik izan amaitu arteño. Benetako erditzea zirudin olakoen estura ta miñekin. Ayena luzea sortu zan berez, oraña ta aspaldiko lena bidur meiaz loturik. Atsekabeak eroan ninduan lenaren gauberanduraño, gero sostoan egubarria erakusteko, lurreko atsegiñak zuzenbideko nekeetatik yaioten baitira.

Arlo au doan bidean lendik ibillia naz eta or danik geiena txastaua neukan edo gogoeta neketsuan sarri ausnartua. Beraz ez da ain arrigarri ortik zerbait azaltzea. Au esanda idazti eder baten oraintsu irakurria datorkit burura:

“Si uno escucha las sugerencias de su propio genio -muy débiles, pero permanentes y verdaderas- no podría ver hasta qué extremos y a qué locuras podrían ellas conducirlo. Y sin embargo, su ruta se halla en esa dirección a medida que él se hace más resuelto y fiel. El impulso más tímido que siente un hombre sano, vencerá a la larga los obstáculos y argumentos del género humano.

Los mayores valores y, ganancias están muy lejos de ser estimados. Fácilmente llegamos hasta a dudar de su existencia. En todo caso, los olvidamos pronto. Pero son la excelsa realidad. Quizá nunca se comuniquen los hombres entre sí los sucesos más asombrosos y verdaderos. La cosecha verídica de mi vida cotidiana es algo tan intangible como los matices del crepúsculo matutino y vespertino.

Hay que esperar poco del día (si es que puede llamarse día) para el que no somos despertados por nuestro propio Genio ... desde adentro por nuestras propias y recién adquiridas fuerzas y aspiraciones...

Debemos aprender a volvernos a despertar y mantenernos en vigilia, no con ayuda mecánica, sino por medio de una espera infinita de la aurora, que no nos abandone en nuestro sueño más profundo...

Sólo alborea el día para el cual estamos despiertos. Y aún hay muchos días por amanecer..." (Walden, de E. David Thoreau. Traducción de Justo Gárate. Espasa-Calpe, Argentina).

Ain zuzen be olaxe, loaldi artaga ta ameslarian gibeldu ziran eresi ontako olerkiak berton agiri danez. Zati batzuk gerotxoago idatzi nebazan. Etorriak egoaz ikuturen bat egiñarren nagi idoro ninduan edo lazтана legunegia izan. Bein baten ustekabeen koskorrekoaren antzean nabaitu neban dei ori ta bertan lotu lanari, zer idatziko neban be yakin barik. Orren sendoa izan agindua. Leneko ta azkeneko olerkiak aspaldi egiñak dira. Lerro batzuk eratsita oskol antzean ipiñi dautsodaz lanari, luzaro ta zindo gorde dagien. Orra noz eta nondik agertu dan lantxo au. Gueñez sortze onek beste gogai bat ekarten dausl burura: gure erriaren gaubetik be bardin azaldu ditekela egubarria, gure nortasuna, euzkera ta ekanduak berbiztu leikezan eguzkia.

Orra beintzat ereduz nire bularrean epel egon dan arnasa, gaztetan baño indartsuago, edatsuago. Gogoak ez dau urterik.

Bizkaiko euzkera darabilt; baño gogaia oparo azaltzeko beste aldetako itzak artu bear nozean bein. Bizkayan bertan doguz Arratian erabilten ez doguzan asko beste errietan ezagunak izanarren. Izugarriro urritu da euzkeres geure zabarkeria dala bide. Ta oba da olako itz erdi igaztuak berbiztu nagikeriz erderara yo baño.

Itz eder asko be asko dira or bazterretan euzkaltzale alperrai itxaroten basoko gibelurdiñak bailiran. Baña arloterian bizita

ondasun ori galdu ondoren eskean gabiltz bape lotsa barik. Igarri barik eldu gara auzitan darabilen toki lorrindura. Batzun eritxiz ainbat itz, ezezagunak Edo mendiko zuzak dirala-ta erderatik artu bear ei doguz euren ordekoak. Doguzenik geienak be olaxe eskura ei doguz. Ez dakit nik zearo lengoak zelan eskura doguzan. Baña badakit nora goazen gerokoai orrela atea zabalduazkero: azkenetara edo utsera. Begira Naparroako zelaira edo Arabara. Alde orreitan bide orixe egin dabela uste dot.

Norbaitek aburu ori aldezten eban aldizkarian eta ale berean aurkitu dodaz itz oneik: “Miserikordiazko obrak” eta abar. Mutillak ! Barregeitzat ipiñita dagozela dirudi. Eleikean ori euzkera garbian ola baño be errezago ta argiago adirazo? Bai, polito goaz bide ortan.

Ta ortik yoan dira idazle asko igazean. Euzkerea idazteko etzalakoan, erderazko itzak dizditsuagoak ziralakoan edo euren idaztietan itz areik ziralako edonon, yita orregaz iñon diran erderakadak idazten ebezan naizta geure artean oso eza-gunak izana bera esateko. Baldar eta lotsagarri deritxot.

Ta orra non artu dauan ainbeste olakokeri erriak berak, norbait izan diran orrein ereduz, bape mengoa barik. Lotsa naz olako itzik emen ipinten erakusgarri. Bestalde gizaldi ontan eize gorrian darabille izkuntz au alde guztietatik erasoz basurdea bailitzan. Edonon dantzugu oiñona ta ausia, euzkerea baztertu ta ito bearra; yakiña, bere ordeaz erdereza sartzeko.

Ta eraso orren indarrez yatorkuna mendaro artu bear dogula? Or dabil etsaia gure nortasunaren besanga au azkoraz setatsu yo ta mozten. Ta orrela egonean yarra bear dogula daukagun apurra galdu arte? Begira ego aldera, Araba ta Naparroako zelaira; ikus zer yazo dan emen berton oraintsu ia erri guztietan. Entzutez ikasten da izkuntza naita lelekotan ia bape yakin ez.

Ori gogoratzea naiko da auzi au erabagiteko. Ni beintzat enoa iñondik iñora bide errez eta galgarri orretan. Gabon ba, lagun onak, eta etzaitiela biar Amurriion atzarri.

Itzulpena albait lauen eta doien egin dot; lerroak be bardintsu doaz etxit dakienai laguntzeko. Orrela aapaldia ta bere itzulpena aurrez aur ikusita errez ulertu leikie. Ganera euzkeraz ez dakienak be orko ardao bizia bera edan leikie, beste ontzi baten izan arren, barrua zerbait berotzeko.

“Aretxarena” ta “Aindiako otsa” berariz egin dodaz neurri orreitan, bata Iparragirren soñuaz eta bestea gudarien ereserkia baizen abesteko. Baña bigarren onek azkeneko lerroan izkin (sílaba) bat dau gañez. Beraz nirean azken-aurreko izkiñari soñuki bi dagokioz, berea ta kenduarena. Olerki bi orreitan azkeneko aapaldiak dira egokienak orrela abesteko.

Eskeintza

Gudari zangar, nauskeriaren
Bide odolduan illa;
Agirre zana, Galindez gaxo
Zugetzarrak kiribilla:
Oinpetu guztien alde
Itz egin daun apaiz-talde:
Mugarra zuta zuon ondope
ta eresi dedilla

Azalekotzak

Egunko yardunean
Urrun dakusgu iturri:
Nekearentzat arnasa
Urrago izanik, urri...
Arrats ospela eldu daneko
Ataz diranai opatu antzez
Atsedona ta bakea

Uso batzuk dabilkioz
Inguruan zabuka;
Beste batzuk egalpera
Sartu yakoz urruka...
Orduan nire adimena be
Usoa lez or dabilla,
urrin ta bakar atsedon guraz,
gogapen ezkutu billa

Larraldetik dator aize
Yostalari biguna
Lotan asi dan lurraren
Arnas ixil, leguna...
Ta bekokian aren laztana
Nabaitzea bai pozgarri
Baña, tamal! Orren legunki
Zer diñon ezin iarri.

Auzo ondoan iturria
Gau ta egun murmuraz.
Eta zerbait esaten dau
Bere kautan, itxuraz...
Baña totel, illuna?
Ainbat gizaldiz ugoldioan
Ez dau aurki erantzuna.

Bete arte urontziak
Barrua dau asarre.
Gero baña urrez bete
Danazkero ein barre...
Aren izkera mordolloa be
Iñok aditu eziña
Eta orobat aren barruko
Atsegin erremiña.

Iturrian ontzia urez
Noz beteko begira
Atsotxo bi barriketa
Ixillean or dira
Ene Yainkoa! Ori ez ete
Iturria bera baño
Lengo sortu zan ele maite?
Zelan bizi da oraiño?

Ixil adi une batez
Iturriko zurruta
Atsotxoan yarioa
Ez egidak ezkuta...
Ezaguna dot izkuntza ori,
Nik maite dodana bera,
Ainbat gizaldiz bazter onetan
Bizirik दौरaun euzkera

Geldi adi larraldetik
Atorkidan aizea.
I baño be maiteago
Yoat gure euzkerea...
Eta mendiko bide zidorra
Estaliarren illuntzak
Gogoarentzat badau biderik
Gure asaben izkuntzak

Ain zuzen be azterketan
Urrin bear dot yoan
Gure lengu yauntasuna
Nontsu ete dagoan...
Galdu doguna billatze ortan
Zakidaz bidean zuzi
Oraingo gaube ontan zidorra
Argi dagidan ikusi.

Ene euzkera, ezagun dan
Izkuntzarik zarrena,
Ez bedi iñoz amai zure
Itz-yario gardena...
Ta orrenbeste ald oneitan
Yarraitu dozunazkero
Gogapen oneik beste ainbeste
Egizuz gorde maitero.

Ataria

Urte mordoska leporatuta
Au biziaren garratza!
Bide luzea egin ondoren
Au bidearen aldatza!
Ainbestez nagi urratsa

Mugarrako atx itzalgarria,
Gizalditako aitona.
Ire alboan artu nai yoat
Ur otzagaz atsedona.
Ortako eldu nok ona.

Norekin barru naigabetu au
Ete nagikek asazka?
Euk ikus euzan gure asaben
Zerraldoia ta seaska
Ta gakusak gu arnaska.

Bazter guztiak irabiauta;
I oster a beti lena.
Ainbeste arrotz, ibilte nasai,
Elea be arrotzena;
Ur au bakarrik gardena.

Ta agure ori azanazkero
Ixilla eta yatorra
Ago entzuten yoanldiko
Mutikoaren autorra.
Lotsaz eiten yoat, orra.

Erbestean

Ergoien baten yaio ta bera
Ezautu baño lenago
Alabearrez erbesterantza
Bial ninduen asago.
Illabetea uretan
Zabuka edo esnetan,
Amerikako legorra yo ta
Oraindio be arago.

Bertarakoan baña burua
Nerabillan alderoka
Ikusiz ango mendi eskerga,
Gizadi artroz, azoka;
Ainbat zetzela barri
Ainbat gauza baragarri.
Beraz gogoan enengikean
Iñondik iñora koka

Erbeste atan itsumustuan
Ibilli nintzan arona,
Urteak yoan eta eotri
Egin arteño gizona.
Zoroen artean zoro,
Atzenduta osotoro
Sorterriari edonon bere
Zor dautsagun yaramona.

Toki arrotzak ekar dakarren
Zoramen orren mendean
Ogetaz urte tamalgarriak
Igaro nik erbestean.
Eginda nengon bertako
Enenkiala zertako
Nintzan ez eta nondik sortua;
Egote zoribagean.

Itxasoz galdu ez ta legorrez
Ondatu bear horrela
Euzkaltasuna, euzkera bera,
Tayua batia txapela.
Bakarrik geratu yatan
Barruko zokondo atan
Ardura-ezak il-agiñean
Lenaren txingar epela.

Eper-txakurra, begi zolia
Bean yosita dabilla
Ganerakoen ardura barik
Lorratz galduaren billa.
Olaxe bizi izan nintzan
Amai bageko ekintzan
Noz eta nundik aurreratuko
Nintzan. Itsu biribilla!

Bear nebana baño gehiago
Gura neban irabazi.
Ta ekiñean sakietatik
Barrunbeko guna irazi.
Buruaren kalteakin
Azken aldean dot yakin
Yaun izatea geugan doala,
Len bear nebana ikasi.

Amesetan be neurtu eleiken
Lurra dozu Amerika;
Orobat ez da bukatzen iñoz
An danaren azterrika.
Uste dau zoribageak
Yaten dauzela bideak.
Baña guenez, zidorrak yanda,
Il utsari aierika.

Bide orretan auzoarentzat
 Izan zan beti arrotza
 Andikeriak ilda eukala
 Aspaldi bere biotza.
 Ta olakoen atzena
 Gertaririk utsalena
 Iñok oartzen ez daualako
 Erioren eriotza.

Erbesterako bidea eban
 Ar atsegiñez gaztetan
 Udabarria betiko zala
 Irudituz amesetan.
 Baña neguko edurra
 Ager estaltzen gallurra
 Ta birlandauen azia yalgi
 Ta osteraz ez ernetan.

Bertako azi orrolloak
 Dakar benetan indarra,
 Ango gizadi osoak baita
 Bururgintzazko sukarra.
 Beraz angok euzkaldunak
 Ez dira guk ezagunak:
 Lur bari atan ilda lengoa,
 Barria dabe sustarra.

Aspaldi baten egin ebala
 Ameriketara bide,
 an dabil nonbait guk ezagutu
 izan ez gendun senide.

Geroko bizi osoan
 etzan agertu auzoan
 berari deiez yardunarren be
 zalakoan beti kide.

Ezin dot azal gomuta orrek
 daragin gogo-estura
 ezta yakin be nondikoa dan
 negar-antpuluena ura.
 Ezkutu orrean antzean
 geratuko da ortzean
 berak egundo erantzun barik,
 dagiogun arrenkura.

Or da ezagun erriarentzat
 dagola erabat illa
 dana iruntsiten daben lurralde
 amaigabetan amilla.
 Olan edozein aldetan
 ta areago erbestetan
 ilda geratzen da gizonean
 aspalditako mutilla.

Sorterriaren zorigaiztoko
 gaube orretan bakarra
 euzkal-abizen alda eziña
 dago bailitzan izarra,
 nozean bein entzutean
 edo nonbait ikustean
 ezer argitzen ezta berotzen
 ez dauan goiko txingarra.

Irarrazabal ta Errazuriz,
 Urkidi ta Olabide:
 an dlra euren izenekoi
 esaten onako bide,
 Baiña izen orrean yaubeak
 aldatu dauz erbesteak
 eta ez dabe orain ulertzen
 izarraren burubide.

Ango bateri azaldu neuntsan
abizenaren nongoa,
Euzkalerrria ezpairik bage
ta Psrantzi aldekoa.
Gizaxo aren zalantza!
Begiratz zerurantz
erakus eban aizea-edo
aitatu neuntsalako.

Nik osteria bein, aurrez nebala
arako mendi izugarri,
nabaitu neban aren ostean
egoanaren egarri.
Eta deadar itunak,
aspaldi nik ez entzunak,
ustekabeen errukarriro
ikutu eustan belarri.

Ene baitarik zetorren nonbait
entzun neban intziria,
ezezaguna ta mes izanda
etxatana eltzen ia.
Gaztedanik bertanbera
itxita neukan euzkera
negarrez asi yatan egiten
galdu oni eskaria.

Otoi eta arren mingorragorik
ez dot aditu sekula;
enaz geratu neure bizian
orduan baizen miñula.
Axe zan aurki mugona
astintzeko nire egona,
ezabatzeko babesgarritzat
nengian akiakula.

Ireltxuaren deia

Maitemindua bazter batera
ixilka doa laztanaz.
Alatsu ni be ostendu nintzan
ireltxu arekin banaz,
ireltxu arekin banaz.

Lenengo atan geratu nintzan
berari adi luzaro,
ezin igarriz arpegiari,
ezin ulertuz zearo,
ezin ulertuz zearo.

Izan be neure beingo maitea
neban sostoan aurrean.
Ni barriz lotsaz az nebalako
ango bizi arlotean,
ango bizi arlotean.

Maiteminduak ikaraz dakus
etorkizun ezkutua
eta nik bardin yoanaldia
ustel orrela galdua,
ustel orrela galdua.

Mendietatik datorren urak,
itxas-aldera elduta,
nik uste olan darabillega
iturriaren gomuta,
iturriaren gomuta.

Ta oarturik enenkiala
euzkeraz bear giñoan
erakus eustan bere altxorra
ikusi nengin osoan,
ikusi nengin osoan.

Zoragarria! Zillarrezko
ta urregorritzko pitxiak,
gizaldietan kutxa zarrean
gutzat gordeta eukiak,
gutzat gordeta eukiak.

Aberastasuna begietsiz
andiro nintzan lillura
ta banan-banan pitxi guztiak
nebazan aztertu gura,
nebazan aztertu gura.

Aditz eder au, atzizki ori,
ango aren egitea;
onen sorburu, aren zertzela
ta zein zan zeñen kidea,
ta zein zan zeñen kidea.

Gure senaren kuku oria,
gure gogaian yagola,
gutar guztion ezaugarritzat
sortu genduna beñola,
sortu genduna beñola.

Izkuntza ortan edonon bere
zerbait entzun doguneko
bere soñu zar eta sorginak
egiten gaitu etxeko,
egiten gaitu etxeko.

Gure asaben usobilloa,
aizunearen burruna,
zugaztipean zoragarriro
iñoz nabaitzen doguna,
iñoz nabaitzen doguna.

Aren aldean.atzo yaioak
zirean gure alboko
ele guztiak naizta eurekin
arro erabilli moko,
arro erabilli moko.

Ara zetorren ate aldetik
yoko zaleen arrabotsa;
nik baña yoko atsegin ortan
burua baita biotza,
burua baita biotza.

Antzerik bada pelota-yoko,
auresku ta soñuetan,
ez da geiago gizon argiak
iruten dauzan itzetan,
iruten dauzan itzetan?

Aureskua da zerdena baña
kolkotasunik bageko.
Samurragorik izan daiteke
biotza pilpil yarteko,
biotza pilpil yarteko.

Ur gardenetan arrankaria
irabio ta murgilla;
bere tegian gogoa billoiz
egiten uger gilgilla,
egiten uger gilgilla.

Ta nozean bein biak dagie
yauzi andi bat aizean
aureskuan be aurrelariak
egiten dauan antzean,
egiten dauan antzean.

Itzezko lerro luzanga baten
sostean ager aditza
gallur guztiak margotzen dauzan
goizeko argi bailitza,
goizeko argi bailitza.

Giro danean baita gizonen
baitan be amesa yagi,
yolasten asi aspaldidanik
zegona lo edo nagi,
zegona lo edo nagi.

Zizak goizean batzea baizen
ori zan nitzat begiko.
Arein usaña gozoa bada
oneina be bereziko,
oneina be bereziko.

Egun osotan, urtetan bere
lotu nintxakon lan orri.
Bide luzea ta neketsua.
Yoana baizen etorri,
yoana baizen etorri.

Bein baten esan neban erreta:
goazen biok etxera.
Ustelkeria! Noberak beti
izan bear dau nobera,
izan bear dau nobera.

Txori bakotxak txinta berea
erabilli oi dau arro.
Birigarroa nintzanazkero
izan naiten birigarro,
izan naiten birigarro.

Gernikarena

Abia nintzan beingoan
guda bizia gogoan
nerabillela yakin bearrez
erria zela zegoan.

Ameriketan barruna
izaneko euzkalduna,
oroimenean Euzkalerria
bera nekusan urruna.

Berein biurtu oi dira
arrandiro aberrira
izakera be galdu ondoren
andiagoak bailira.

Besterik nire itzulpena:
lengo nintzan nentorrena,
yantzia bera, elea be bai,
izana baizen izena.

Eltzerakoan bertora
pozarren nintzan birlora
begietsita odei artean
Gorbeako gane gora.

Ozen bialdu abotsa
entzuteko aldapotsa...
Ta ixiltasuna, erantzunik ez...
Uzkurtu yatan biotza.

Bildurrak eustan eraso.
Zer ete zan emen yazo
orren ixillik zegonazkero
mendiska onen guraso?

Ixil ak berak iñoan
negarrak ez alakoan
zein atsekabe ta lotsaritan
Euzkalerria zegoan.

Arri ez olakoetan?
Gernikako edoietan
egazti baltzak agertuaz bat
dana zegon sugarretan.

Yoko etoi gozagatxa,
su ta amurruzko ekatxa,
gizonak asmau eta burutu
leikenik siñesten gatxa.

Guk ez dazagun izari,
gaizkin azaluts mausari;
or egin eban iñoz estaldu
ezingo dauan lotsaii.

Uri danari erraia
zatika eutson barraia.
An zan ageri garren argitan
gorria zala etsaia.

Bendekoaren lauorri
atsegin andi yako orri.
Esan begie, on ez bada,
nor izan daiteken gorri.

Sarraski ori asmetan
egon zan aldiluzetan
otso gose ta barrandaria
ibil oi dan lez gaubetan.

Gero gauzarik baltzena,
siñestu ezin leikena:
piztien ori egin ondoren
iñori egotz obena.

Besteak ei dira gorriak
saltzen egonda ergiak;
bera zuria eriotan be,
diñonez naspillariak.

Bere biziko lapurra!
Ez dau lenengo guzurra.
Antxiña baten Bergaran eban
itz emona bertan urra.

Aspaldiko arerio,
amurru ta sarrakio e
datzen alde guztietara
dirudiala erio.

Berea ei da bestena,
biderik bako zuzena,
aurrerik bako aurrerapide:
guzurra bai, guzurrena.

Sarraskia be alako
egite baltza zalako
zapi baltzen bat idoro bear
illaren estalgeitzako.

Antxe zan amai eguna
ta gure yaubetasuna;
bardin bageko gizabidea
antxe zan gera zurruna.

Laster saukume goseak
lenengo arein kideak
agertu ziran sarraskiari
yosteko euren erpeak.

Idoro dabe mandio
ta beinbeingo emendio
naizta bazkatzat izan
iñoren negar eta elorrio.

Arrano-aralde basa.
Or goian dau egurasa;
bizitekoa baña non ebas
da beti orren ataza.

Alde guztietara begi
Ta erpea zorrotzegi;
usna ezkeroko ego ariñez
Aizea laster edegi.

Oatsea dau legorra
Ta bizikera dollorra.
Arrapariak gane ortatik
Egin daroa bolorra.

Lenago be bolorrean
Ibilli zan urrunean,
Baña guztiak eben banak
Yo moko saloberean

Lurra emen iñardausi
dau bera dala-ta nausi
ganetikoai sena bearrez
erraietatik erauzi.

Begiak beintzat atera
guraerroien antzera
itsuok gero eroateko
erabat ondamenara.

Au gizadiaren lazka
ta egiñaren nardaska!
Or dabiz berein itsutu dauzan
atzaparrari miazka.

Berak sutu eban toki
bere uritzat dabe egoki.
Olako irañik egotziteko
gizonak bear bekoki.

Ainbeste neskatzki alper,
aldapetako galeper,
erderaz eta labankeriaz
aren goratzalle dager.

Beste berein mitxirrika
geure lepotik irrika;
zer darabillen ez dakiela
euren buruei arrika,

Oraindio andiena:
Yaungoikoaren izena dabe
agotan ereti oro
bailitzan urliarena.

Itsuok orrela dabe
iñondiko bide gabe
Yaungoikoaren izena
yarten sorkeriaren zutabe.

Talde zoro ta tentela,
azal ta mami ustela.
Gero geugana etorriko da
guzur utsa dakarrela.

Aretxarena

Iparragirren beingo
zerutar arnasa,
atoz amai dagidan
aurreko ataza.
Onen aldean
beste guztia erraza;
emen dator legeta,
iñozko matasa.

Ludiaren geigarri
goian zabaldia;
gizonaren erpina
buruko argia:
onen egurastoki,
izan berezia.
Alde ortara doa
orain gudaldia.

Aspaldi zan igaro
guda-oiñaztarri,
baña etzan asetu
etsaien egarri.
Gero sortu dabena
benetan galgarri.
Berak eragiten daust
oraingo aldarri.

Odei motzez osoro
illundu da goia;
aldi oro ganean
dantzugu turmoia;
zantzu orrein ostan
dator aldagoia:
etxera ez doana
espetxera doia.

Argitako daukagu
bakarrik oiñaztu;
aize amurratuak
ganeak orraztu
ta barren guztiak dauz
dongaro itxulaztu:
aize ori zakarrez
ezin lei arnastu.

Asaben arau eta
oituren itzala,
euzkaldunen betiko
yokera zabala:
guztia geratu da
eginda zezpala
beingoz nagusiturik
etsaiaren ala.

Gizonaren yauntasun
ta eskubideak,
iñon baño lenago
gurean erneak,
Gernikako aretxa
baizen agureak:
orrela erail dabez
ainbako dongeak.

Geure eskuko giñanok
dogu noraeza,
eriotza beraren
ganeak areza.
Egoitza ortatik
ur dago ezereza.
Ta ara bultzaka
dagi etsaiak inkeza.

Larrialdirik bada
auxe larriena,
gizaldietan iñoz
izan ez doguna.
Emen da gs
alzorian gure nortasuna,
Gernikako aretxa
ezik euzkalduna.

Arerio malmutsak
geiago antola,
erbestetik datorren
erdal-uriola
guztiz ezabatzeko
euzkaldun odola.
Gero zertako bear
genduke oskola?

Ausaz eroateko
mendaro buztarri,
sena ta itzaren orde
samean intxarri
deadarka dabillen
aren nasaigarri:
gure asabaentzat
oso gauza barri.

Ori dala-ta gara
geurean arrotzak
eta ganetik doguz
begirune motzak
baita apal entzun bear
itzaiaren otsak.
Nor eleuke artuko
olakotan lotsak?

Euzkerea da gure
gogoaren leka.
Oneri be eguzkia
nai dautso debeka,
bizi danean beintzat
egiñik iseka,
ixildu dadinean
asteko eneka.

Ibilliko da gero
billatzen zatiak
baita euzkaldunaren
lengo azurkiak
ikusgeitzat polito
eukiteko biak.
Areago ezin dau
asmatu lukiak.

Berein yarriko dira
ikusten aurrean
eta berak esango
barreka gordean:
-Azurrok aneika urte
debezela urrean?
Bai zeral Neuk ulduak
apari batean.

Gernikako aretxa,
euskoen ikurra,
gurago dau eiteko
sutako egurra
ta abere zikiñentzat
yanari uzkurra.
Ez da baña oraindik
ausartzen maltzurra.

Urrean ba-darabil
ori be gogoan,
baña egin gura dau
illunpe osoan
beste zer edo noren
ixteko lepoan.
Euzkalerri osoa
balitz lozorroan!

Bide barik ebasten
bateri berea.
Ta erri osoari
olan erailtea
izkuntza, yauntasuna
ta izate berea
ez ete areago,
eun bidar dongea?

Gauza guztiak ditu
gurean naspilla;
bizirik dagoana
nai leuke ikus illa
ausaz ez bada bera
besteko zirtzilla.
Ete da Balbearen
beraren mutilla?

Bestalde lurpetik dau
ekarri onuntza
bazterrak ikaratu
guraz azurrutsa,
emen iñok ikusi
ez dauan zuzutza,
bere asmu zitalen
irudi malmutza.

Orra mamutzar ori
erioz asea,
gurasotzat daukona
bera din gudea.
Ezin daiteke beste
iñoren semea
sorkari ain itsu
ta erruki bagea.

Oraindio ez daki
zertsu dan gizona,
gure artean argi
aspaldi dagona.
Ta sarri aitatzen dau
zeruko Yaun ona.
Naste andi orregaz
eldu yaku ona.

Gizonen biziari
galazkero lotsa
ta bide guztietan
erabil aiotza
adi barik yoaren
aiene mingotza,
nondik entzun lei orrek
Goikoaren otsa?

Siñesteari beintzat
onik ez dagio
bere otsean baitau
emen sua ixi;
egin eta eragin
orrenbeste erio,
gogoari be nonai
edatu lakio.

Zonkondo guztietan
dabil barrandari
irrikarentzat ia
ezer dan nabari,
buruen naiz eskuen
edozein arnari:
arnasa bera be
zor dautsagu berari.

Gudaketa zorrotz au
azpitik doa-ta
ez dau sortzen besteak
añako zarata.
Or dabil orratio
ilgarri ezpata:
orixe da guztien
ganeko enbata.

Euzkalerria zauriz
itxirik albetan
erailea or dabil
orain illunpetan
eriotz ankerraren
aztarnak gordetan,
arnasa eragozten
il daiten benetan.

Iñok yakin ez daian
illaren zertzela
eten barik daroa
ganera orbela,
idazti ta orriak
dakarren azmela,
buruak emoneko
edesti ustela.

Ta guenez burua
albeit estaltzeko
azal utsa darabil
danaren ganeko,
bear izanazkero
baita eskupeko.
Baña yoko guztiak
ditu alperreko.

Guzur utsezko baso
orren ostopean
gura leuke burua
gorde gerizpean,
piztiak oi dabena
bera egunean.
Baña geziok yakoz
yosiko soiñean.

Bere begira dagoz
ixillun tirmena,
ernemiñetan bizi
gogoan añena,
egunen baten zapart
dagiken apena.
Iñok ez daki orrek
astindu leikena.

Geiago esateko
datorkit ezmeza:
eleiz-gizon andien
yantziko tolesa,
sorkeri guzti oneik
gordetako leza,
yoarentzat itxita
daukien babesena.

Guzur andiputz ori
zanean gugandu
egia zoragarri
yaken begitandu.
Yaubetuz baña eban
egia orbandu
ta oinpean asarre
il eta eztandu.

Kendu zabalkundean
darabilen itza,
gudazko uriola
nastuaren bitsa,
ta or dogu nabari
oraingo bizitza:
oso gogaikarria
dan basa-likitsa.

Geziketa au zakarra
dogula ziñetan?
Bada zakarragorik
eta egiñetan.
Itzik ez gendulako
bear zan unetan
orain lotsatzen
gaue yoaz ezpanetan.

Nauskeri, murrizketa,
guzurra ta abarra...
Entzun beñepein zuok
nire deadarra:
Urrunetatik txito
dator euzkotarra,
aurrera yoteko be
or dau bide zarra.

Gernikalko aretxa
aitona bezela,
beko aldean erruz
zotz eta orbela,
goiko aldean ortze
lañotsu motela:
itxaroten semeoi
daukagu orrela.

Berak gerizatzen dau
aberi lastana
ta erriei yagoten
utsik aulki bana.
Zer dala-ta giñan gu
ortik sakabana,
odolak be sspoztu
berea dan zana?

Beñolako “zugatza”
alda zan “arbola”,
lengo uzkur gizena
biurtu txikola,
ganbera ortan bide
zala ezaizola.
Noraño aurreratu
geintekazan ola?

Emon ta zabaltzeak
ia gauz igartu.
Ataz askatasuna
genduan indartu,
Euzkalerrian baina
gaitue buztartu.
Lozorro ontatik nozbait
Gaitezen itxartu

Burua jasoteko
bear dan indarra
uskeri ta jokoan
daukagu zabarra.
Arretaz batu daigun
banako txingarra
ta beingoan sortuko
aberkoiugarra.

Euskaldun tamalgarri,
atoz arexpera,
betoz euskal oiturak
bai eta euskera.
Emen batu gaitezen
asaben antzera;
artu dagigun lengo
bidea oster.

Gernikako aretxa
guztion begiko,
euskaldunak azpian
gozak belauniko.
ago beso zabalik
beti ta betiko
eta Euskalerrria
eu beste biziko.

J. M. Etxebarria